

Arantxa Urbe

HIK HASIKO KIDEA

Eskola munduaren beharrea

Jada inork gutxi ipiniko du zalan-tzan euskararen ezagutzan eta erabileran inguruak duen eragina. Askotan, eskolak mikrokosmos txikiak bilakatu ditugu, blindatu, euskara arloan erdiesten ditugun lorpenak haren ateetatik kanpo urtu ez daitezzen.

Eskolak euskara-erreserba bilakatu behar izan ditugu. Eta beharrezkoa izan da, akaso, hainbat garai eta egoerari aurre egiteko, bizirauteko. Euskararen ezagutzari dagokionean emaitzak eman ditu horrek; ez hainbeste erabilerari begira.

Gaur badakigu hizkuntza bat erabilia izan dadin, baliagarria eta funtzionala gertatu behar zaiola hizlariari. Eta hori, eskolaz kanpo zabaltzen den mundu aberatsean sentitu behar da, batez ere: benetako bizitza garatzen den lekuan. Han haserretzen, maitemintzen, kezkatzen eta dibertitzen baikara, besteen ondoan pertsona gisa errealizatzen garen bitartean.

Azken urte luzeetako eskarmentuak erakutsi digu euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko ez dela nahikoa eskolan euskaraz bizitzea; noski, funtsezkoa da eta beharrezkoa, baina ez nahikoa. Eskolaz kanpoko munduaren beharra dugu.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak euskararen normalizazio prozesua



ALBERTO ELOSEGI

areagotzeko eginkizunean, 2.000.000 herritarri eragiten dieten 66 udalerriren Udal hizkuntza-politikak neurtu zituen iaz bigarrenez.

Emaitzek argitara ekarri dute 1.427.504 biztanleengan eragina duten 34 udalek hizkuntza-politika eskasa dutela. Beste aldean, gainditu duten udalak ez dira iristen aztertutako biztanleen laurdenera ere.

Hauteskunde kanpainan izan berri gara, eta alderdien jardunari begiratu diogu. Ikusi dugu ez dutela hizkuntza-politika homogeenorik egiten, ezagutza mailari erantzun diote gehienek. Ondorioz, politika eraldatzaileak baino errealitateari erantzuten dioten politikak dira. Ez da, bada, politika egokiena harago urratsak emateko!

Horien ondoan guk, eskola barruan bizi garenok, gainerako herritarrekin eragile bihurtu behar dugu tokiko administrazioetan hizkuntza-politika aldarazteko. Izan ere, administrazioek hizkuntza-politika aski eskasak aplikatzen dituzten bitartean, herritarren euskaraz bizitzeko nahia indartuz doa.

Determinazioz eutsi behar dugu euskaraz bizitzeari, eskola barruan eta eskolaz kanpo. Batak bestearen beharra du. Bestela, nekez ikusiko ditugu eskolan egindako ahaleginen fruituak mundu zabalean. ■

«
Determinazioz eutsi behar
diogu euskaraz bizitzeari,
eskola barruan eta eskolaz
kanpo. Bestela, nekez
ikusiko ditugu eskolan
egindako ahaleginen
fruituak mundu zabalean
»

TXANDAN

Joxerra Garzia



Zer kontatu behar dizut ba nik zuri, irakurle, ez dakit-eta ezer?

Ez dakit nondik eskuratu duzun ARGIAren ale hau. Ez jakiten hasita, paperetik edo pantailatik ari zaren ere ez dakit. Demagun hala ere honaino iritsi zarela, irrikaz ez bada txiripaz, zeuk jakingo duzu nola eta zergatik. Nik, zure larruan banengo, ez nukkeen horrelako (alfer)lanik hartuko.

Gainera, zuk dena dakizu, hori da txarrena. Zuk lerro hauek irakurtzerako, amaituak izango dira hauteskundeak, baita Espainiako futbol liga ere.

Hutsa bete hitz

Ni, berriz, emaitzak ez dakizkidala ari naiz idazten. Munduan beste gairik ez bide dagoenez, zer egin?

Jakina, bi lehiaketa horiek dituzten antzekotasunak aipa nitzake, horretarako ez baitago emaitzak jakin beharrik. Esaterako, biak jokatzen direla jokalaririk batzuek ustez onartzen ez duten joko eta arau esparruan, eta azken batean biren arteko kontua izaten dela nagusigoa, gainerakoak beste txapelketa batean lehiatzen direla.

Hori, ordea, ezer esan gabe jardutea litzateke, eta genero horretatik aski izan dugu aspaldion, aski izan dugunez. Isilik hobe dut, beraz. ■